



GKA+EE

**Gasteizko Kafe Antzokiaren
eta Euskararen Etxearen
programa**

nondik

Arkitektura eta Hezkuntza Ikerkuntza estudioa

GKKA + EEE

egilea:

nondik

Arkitektura eta Hezkuntza Ikerkuntza estudioa

bultzatzailea:



LAZARRAGA
KULTUR ELKARTEA

GKA+EE programa definitzeko planteamendua

Gasteizko Kafe Antzokiarentzat eta Euskararen Etxearentzat etxe berri bat sortzeko asmoa dela eta, Lazarraga Kultur Elkartek amets hau errealitate bihurtzeko ideiarekin beste talde euskaltzaleekin eta Gasteizko Udalarekin bilera batzuk egin ditu.

Nondik arkitektura bulegoa saiatu da zeuden ideiak zehazten eta ideia horiei forma ematen, beharrezkoa den programa egiteko. Txosten honek adierazi nahi du, era proportzionatu eta neurritu batean, kokapen berriaren aukeren barruan beharrezkoak izango liratekeen Gasteizko Kafe Antzokiaren eta Euskararen Etxearen espazioak.

Beharren programaren garapenaren estrategia prozesu parte hartzailearen bidez bideratu da, Lazarraga Kultur Elkartearekin bilera ezberdinetan egin diren dinamiken bitartez. Helburu hau buruan, txosten honetan jasotzen da landutako atal bakoitza: Lehenik eta behin, proiektuaren kokapena eta orain arte egindako bide luzea adieraztea. Bigarrenik, kokapenari eta Ruiz de Bergara jauregiari buruzko datu eta informazio gehigarri gehiago jasotzea; eta azkenik, Kafe Antzoki ezberdinen kasu azterketa egitea. Bigarren atalean prozesu parte-hartzailea eta bertako dinamiketan jasotako datuak jaso dira. Txostenaren amaieran, aurreko ataletan jasotako emaitzekin egindako beharren programaren proposamena dago jasoa.

Eranskin gisa, Ismael García Gomezek eta Iban Sánchez Pintok, Arkitektura-Arkeologian Talde Ikertzaileko kideek, Ruiz de Bergara jauregiari buruz egin zuten ikerketa atxikitzea egokia iruditu zaigu.

Txosten honetako ondorioak erlazio diagrama eta azalera orientatzaile bezala ulertzen dira, GKA+EE proiektuko lehiaketarako oinarriak sortzeko eta idazteko erabil daitezten.

SARRERA
AURKIBIDEA
AURREKARIAK

Berriak
Egistamoaren kronologia
Kokapena
Ruiz de Bergara jauregia
Ereduen azterketa
Berezitasunak

PROZESU PARTE-HARTZAILEA

Dinamiken sekuentzia
Ekintzak+espazioak
Ezaugarri arkitektonikoak
Antolaketa-Harremanak
Asmatu!
Ametsen eskultura
Ordutegia

PROGRAMA

Sarea
Irizpide arkitektonikoak
Antolaketa-harremanak
Ordutegia
Azalera

aurrekariak aurreka-
iak aurrekariak aurr-
rekariak aurrekariak
aurrekariak aurreka-
iak a i aurr-
rekariak aurrekariak
aurrekariak aurreka-
iak aurrekariak aurr-
rekariak aurrekariak

AURREKARIAK

Noticias de Álava

El Gasteiz Antzokia cuenta con 14 ideas para su desarrollo

Empieza el proceso para determinar las cuatro mejores que obtendrán los 36.000 euros de premio del concurso. La Mesa de Contratación llevará a cabo la selección de las propuestas que mejor encajen en el entorno de Escoriaza.

LAZARRAGA KULTUR ELKARTEA

Gasteizko Kafe Antzokia:

asmoak gauzatzeko unea da

“2018a izan behar da Gasteizko hiritarrek nolako Kafe Antzokia izango duten jakin beharreko urtea. Denbora aurrera doa, baita legegintzaldia ere, eta alkateak zein Udal Gobernuak beren hitza betetzeko unea iritsi da”



berria

Hamar urteren buruan, bosgarren kokapenean

Bide luzea egin du Gasteizko Kafe Antzokiaren proiektuak. Hasieratik aho batezko oniritzia jaso izan badu ere, proiektua atzeratuz joan da; epeak betetzen badira, ideia sortu eta laugarren legealdian egingo dute.



LAZARRAGA KULTUR ELKARTEA

Además del análisis de la nueva propuesta de ubicación, el plan de viabilidad es imprescindible

berria

Apustua, inoizko handiena

Gasteizko hiriguneko muinoan Gasteizko Kafe Antzokia eta Lazarraga Euskararen Etxea egiteko proiektua aurkeztu dute. Euskara ardatz duen topagunea, aisialdiari eta kultur gintzari lotuta.

TALEA

Kafe Antzokia Eskoriatza Eskibel jauregian egitea ezinezkotzat jo du Udalak

Gasteizko Udaletik jakinarazi dutenez, fuel-olio astunez betetako depositu bat aurkitu dute Eskoriatza Eskibel etxadian, eta talde euskaltzaleei Kafe Antzokia Ruiz de Bergara jauregian kokatzea proposatu die.

Noticias de Álava

El Antzoki suspira por su sede definitiva

El palacio Ruiz de Vergara es la enésima ubicación para albergar un equipamiento añorado por el mundo euskaldun

berria

Antzokia, hutsetik

Gasteizko Udalak eta Lazarraga kultur elkarteak lan handia dute hilabeteotan: Ruiz de Bergara jauregian Gasteizko Kafe Antzokia eraikitzeko baldintzak adostu eta xehatu beharko dituzte. Urtea amaitu baino lehen lizitatu nahi dute proiektua diseinatzeko eta eraikitzeko kontratua.

Noticias de Álava

“En una semana no se puede decidir sobre el palacio Ruiz de Vergara.

Necesitamos más detalles”

El proyecto del Gasteiz Antzokia encuentra otro obstáculo con un depósito de fuel en Escoriaza que coloca al palacio Ruiz de Vergara como alternativa.

TALEA

Ruiz de Bergara jauregiak hartuko du Gasteizko Kafe Antzokia

Udalak eta euskalgintzake eragileek lortutako akordioari esker, Ruiz de Bergara jauregiak hartuko ditu Kafe Antzokia eta Euskararen Etxea, Alde Zaharraren bihotzean.



90.eko hamarkadaren amaieran, euskarazko kulturgintzaren inguruan lan egiten zuen herritar talde bat Samaniego zinemak Kafe Antzoki bihurtzen saiatu zen, Bilboko Kafe Antzokiak erakutsitako bideari jarraiki. Baina, kontaktu batzuk izan ziren arren, azkenean, ez zen emaitzarik lortu.

2004. urtean Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia lantzen ari ziren lan-mahaietako batean "Euskararen Baliabide Zentroa" aipatu zen, euskarazko kulturgintzan ardaztutako erreferentziazko gune bat, baina orduan ere ideiak ez zuen aurrera egin.

2008. urtean EAren eta PSEren akordio baten bitartez, Gasteiz Antzokiaren proiektua Udalaren agendan sartu zen bete-betean. Append enpresari azterketa bat eskatu zitzaion, eta honek 2009. urtean aurkeztu zuen: "Gasteiz Antzokia proiekturako proposamena. Egiturak, ezaugarriak eta kudeaketa-ereduak".

2010. urtean azterketa horren jarraipen gisa, prozesu parte-hartzaile bat abiatu zen kultura, euskara eta gazteria arloko eragileekin. Legealdia amaitu, eta egitasmoa ez aurrera ez atzera geratu zen, ordea.

2011n hasitako legealdi berrian proiektua mahai gainean egon zen talde politikoen arteko akordio ezberdinetan. Kokapen eta eraikin ezberdinak aztertu ziren: Guridi Zinemak aurrena, eta Alde Zaharreko ur-biltegia gero.

2012ko uztailaren 18an Gasteizko Kafe

Antzokiaren aldeko Plataforma publikoki aurkeztu zen eta Kafe Antzokiaren aldeko manifestua plazaratu zuen, sinadura bilketa abiaraziz.

2012ko udazkenean sinadurak Udaletxen aurkeztu ziren.

2012ko abenduan Plataformak egitasmoa Oihaneder-Montehermoso kulturgunean kokatzeko proposamena egin zion Udalari.

2014ko urtarrilean GKAREN aldeko plataformak "Lazarraga Euskararen Etxea & Gasteizko Kafe Antzokia" proposamena landu zuen.

2014ko urriaren 15ean LKEk urte baterako akordioa sinatu zuen Gasteizko Udalarekin

2014ko urriaren 16an Oihaneder Euskararen Etxea inauguratu zen Montehermoso jauregian.

2015eko otsailaren 10ean Lazarraga Kultur Elkartearen aurkezpen publikoa egin zen.

2015eko maiatzean Udal hauteskundeetara aurkeztuko ziren talde politiko gehinekin bildu ostean, LKEk Kafe Antzokia egikaritzeko borondate politikoa zegoela berretsi zuen.

2016ra arte LKEk Udaleko Euskara Zerbitzuaren baitan kudeatu zuen Oihaneder. 2016tik aurrera Kultura sailaren baitan kokatzen da

2016ko uztailaren Udalak egitasmorako kokapen proposamena egin zuen: Eskoriatza Eskibel Etxadia. LKEk begi onez ikusi zuen kokapen proposamen sendo bat egin izana.

2016ko abenduan Udalaren kokapen proposamenak sortutako ezadostasunen aurrean

LKEk eskaera zehatza egin zion Udalari: proiektua Eskoriatza-Eskibel etxadian garatzeko asmoarekin jarraitzeko, baina Auzolana frontoian esku hartzea aurreikusten ez duen kokapen proposamena birplanteatzeko.


2017ko uztailaren Auzolana pilotalekua egitasmotik at uztea onartu zuen Udalak. Erabakiak kontsentsua lortzeko bidean jarri gintuela iritzi zuen LKEk.

2017ko udan egitasmoaren izaera juridikoa, kudeaketa eredu eta behin betiko kokapena lantzeko Udal lan-taldea osatu zen, LKE, ordezkari politiko eta Udaleko teknikariek.

2018ko martxoan Eskoriatza-Eskibel Etxadian fuel oil depositua agertu zen eta aurkikuntzak stand by egoeran utzi zuen egitasmoa.

2018ko maiatzean Udalak kokapena proposamen berria egin zuen: Ruiz de Bergara jauregia.

2018ko uztailaren egitasmoa Ruiz de Bergara jauregian kokatuko dela adostu zen.




Kafe Antzokia eta Euskararen Etxea hartuko dituen eraikina Ruiz de Bergara jauregia da, Errementari kalean kokatuta dagoena eta alboko lursailarekin konektatzen dena. Azken hau, Zapatari kaletik eskuragarri da. Jauregia Gasteizko Alde Zaharrean dago. Auzo berean denboran zehar zaharberritu diren beste eraikin baliogarri eta erabilera anitzeko batzuk topa daitezke. Adibide bezala, Montehermoso jauregia (Oihaneder Euskararen Etxea gaur egun bertan dago kokatua), Sokaren Etxea edo Eskoriatza-Eskibel jauregia (GKA+EE proiekturako aurreko proposamena izandakoa, baina burutu egin ez zena).

Ruiz de Bergara jauregia beste erabilera administratibo batzuentzat zaharberritzen hasi ziren, baina bertan behera geratu zen proiektua. Egitura zein estalkia egoera egokian daude, eta horregatik ez lukete inolako aldaketarik behar. Ruiz de Bergara jauregiaren aurrealde nagusia, Errementari kalekoa, mantendu egin behar da.


Jarraian azaltzen dira jauregiak historian zehar izan dituen fase ezberdinak. Informazio gehiago nahi izatekotan, Ismael García Gomezek eta Iban Sánchez Pintok, Arkitektura-arkeologian Talde Ikertzaileko kideek, Ruiz de Bergara jauregiari buruz egin zuten ikerketa irakurtzea gomendatzen da.

Horrez gain, argazki batzuk gehitu dira, gaur egun jauregiko espazioak nola dauden ikusi ahal izateko.







I. Fasea
Aurre existentzia (1521 urtea baino lehenago)




II. Fasea
Jatorrizko jauregia (1521 urtean)




III. Fasea
Jauregiaren handiagotzea
(1545 eta 1628 urteen bitartean)




IV. Fasea
Berreraikitzea (1755 eta 1813 urteen bitartean)



V. Fasea
Etxebizitzak (1864 urtearen ondoren)



VI. Fasea
Azken aldaketa (XX. mendean)



patioaren barnealdea (Errementari aldea)
0.solairua, 1. solairua eta 2. Solairua



patioaren barnealdea (Errementari aldea)
0.solairua, 1. solairua eta 2. Solairua




patioaren barnealdea (Errementari aldea)
0.solairua, 1. solairua eta 2. Solairua



Iparraldea (Errementari aldea)
3. solairua. Igogailuko egitura



patioaren barnealdea (Errementari aldea)
Sabai-leihoia (luzernarioa)



Mendebaldea (Errementari aldea)
3. solairua



Errementari kalea
Sarrera



Zapatari kalea
Sarrera



Sarrera (Zapatari aldea)
1. solairua



Zapatari aldea



Zapatari aldea





San Agustin Kulturgunea
552 m2

Azpeitia
14,6K biztanle






BKA
330+135 m2

Bermeo
16,8K biztanle




Bilboko Kafe Antzokia
530 m2 * 6 pisu

Bilbao
345K biztanle



Doka
260 m2


Donostia
186K biztanle





Plateruena
612 m2

Durango
29K biztanle




Espaloia
250 m2

Elgeta
1,1K biztanle



Pagoa
100 m2


Oiartzun
10K biztanle



Beikozeni
325+160 m2

Ondarroa
8,5K biztanle





Plateruena
612 m2

Durango
29K biztanle

Espaloia
250 m2

Elgeta
1,1K biztanle

Pagoa
100 m2

Oiartzun
10K biztanle

San Agustin Kulturgunea
552 m2

Azpeitia
14,6K biztanle

Bilboko Kafe Antzokia
530 m2 * 6 pisu

Bilbao
345K biztanle

Doka
260 m2

Donostia
186K biztanle

BKA
330+135 m2

Bermeo
16,8K biztanle

Beikozini
325+160 m2

Ondarroa
8,5K biztanle

Gazteizko Kafe Antzokia
Euskararen Etxea
1275 m2

Gasteiz
244K biztanle



GKA+EE proposamena bezalako kasuen azterketa egin da eta horrela, azalera, oinaren morfologia, kokapena, beste lekuekiko erlazioa (kasu honetan Euskararen Etxea), eraikin mota eta irudi orokorra alderatu nahi izan dira.

Aztertutako proposamenetan ez da espazio mota edota arkitektura tipologia espezifiko bat gailentzen, publikoaren eta antolatzen diren ekitaldien arabera, espazio handiagoak edo txikiagoak ezberdintzen dira. Kulturgune handien kasuan, azpiegitura

konplexuagoak agertzen diren bitartean, kafe antzoki txikienetan, ostalaritzarekin lotutako eszenatokia duen espazio bakarrak ageri dira.

GKA+Eeri dagokionean, hiriaren bihotzean dagoen jauregi batean izango duenez kokapena, eta euskalgintzako erakunde, elkarte eta norbanakoekin elkarlana ahalbidetuko duen espazioa izango denez, eraikinaren identitateak izan beharko duen balio erantsia kontuan hartzea garrantzitsua izan daitekeela ondorioztatzen da.

IZEN	NON	ALDE ZAHARRA	LANKIDETZA (BESTE ERAGILE ERAKUNDE BATZUEKIN)	ERAIKIN BEREZIA	ESZENARIOA
DOKA	DONOSTIA (GIPUZKOA)				●
SAN AGUSTIN	AZPEITIA (GIPUZKOA)	●	●	●	●●
PAGOA	OIARTZUN (GIPUZKOA)				●
ESPALOIA	ELGETA (GIPUZKOA)	●	●		●
BEIKOZINI	ONDARROA (BIZKAIA)	●		●	●
PLATERUENA	DURANGO (BIZKAIA)			●	●●
BKA	BERMEO (BIZKAIA)	●	●		●●
KAFE ANTZOKIA	BILBAO (BIZKAIA)			●	●●
GKA + EE	GASTEIZ (ARABA)	●	●	●	★

su parte-hartzaila
e-hartzaila prozesu
artzaila prozesu parte
prozesu parte-hart
su pa **PROZESU PARTE-HARTZAILA** ilea
e-hartzaila prozesu
artzaila prozesu parte
prozesu parte-hart
su parte-hartzaila



DINAMIKAK

1. BIZIPENAK - EMOZIOAK
2. EKINTZAK
3. ESPAZIOAK
4. EZAUGARRI ARKITEKTONIKOAK
5. ANTOLAKETA - HARREMANAK
- 6- ASMATU!
7. AMETSEN ESKULTURA
8. ORDUTEGIAK
9. ESPAZIOAK

ARETOAK

LAGI BERRAN SORBUZANAK EDUKITSI LASAI EGIN

9 6 1 7

11 5 12 2

10 13 13

F-1 BEROKIAK **BULEGOAK**

LANERAKO ISOLATU

KONTZENTRATU

Ausartu

LAN LABUR BERTAN DUTENAK ELARRAREN GOSMATEKO ELKARTZE DIRA.

LANEAN GUSTURA JARDUN

LAN BILERTAK EGIN

LIGATU

8 7 5

EKINTZA SARERATU

KAFE ANTZOKIA

11 13 13 13 10

6 11 11

MUSIKA ENTZUN

FORDE

PINTURAK EGIN

OSTEERAK ABOGATU

ARGIA HUGIENDUARRAK AKTIBATU

KAMARAK BETE

HARRERA EGIN

BRONKA BAT VISAU

Lequeneren peltatu

UPERA BATAN JETZETE-TZE EGIN OZPATU.

7

ELKARTZE JARDURU BAZEN OSTEN GARBIAKETA

BRONKA BAT VISAU

9

3 5 8

1

Deutea egin de eparria asatu

POTE BAR HAZIEM

BAWATERIAK EDARIK SARTU

10 EGIN

ELKARTZEAN PARTE HARTU DUTENAK "OSTEN" BAT HARTUEN DUTE.

DUTATU

TAILERRAK

IKASI

ZALAZASUN PARTIKULAREN DUTEN ELKARTZEAN SORTU

EKOIZTU

10 6

12 1 5

8 2

ERABILTAILEAK KONTATU

PECIKOLA BAT ANTZERLAN BAT IKUSI

BARNEA ABERTASU

9 13

BESTELAKOAK

ERRITZERA JETEN

ARETOAK PRESTATU

Irakurlearen jardu behar izan.

GARDITU

MULKIAK IPINI

3

ESKALERAK ³⁰⁰ JANTSI

BENTILATU

1

KOMUNERA JOAN

IRAKURRI

AUTOKIDEEN PEGORATU

KOMUNEKO PATERA HURKATU

ARGIAK PIZTU



Ekintzak+espazioak

Dinamika honen bidez, GKA+EE-n emango diren ekintza ezberdinak aurreikusi ziren parte-hartzaile guztien artean, eta ondoren, egunerokotasunean emango diren akzio ezberdinak bost gune ezberdinetan sailkatu ziren: kafe antzokia-gune nagusia, tailerrak, lan-espazioak, areto nagusia eta bestelakoak.

Dinamika honen helburuetako bat zein ekintza zein lekutan emango den aurreikustea izan zen; eta beste helburuetako bat, aldiz, espazio ezberdinek ekintza berdintsuak ahalbidetzeko eskaintzen dituzten aukeren inguruan hausnartzea.



ARETOA

Altua
Malgua
Akustikoki ongi isolatua
Funtzionala
ERABILERA ANITZEKO
Azalera murrizteko edo handitzeko aukera
Epela / goxoa
Zabala
Erakargarria

TAILERRAK

Zabala
Malgua
Kolare biziduna
Akustikoki ongi isolatua
ERABILERA ANITZEKO
Funtzionala
Azalera murrizteko edo handitzeko aukera
Aireztapen naturala
Epela / goxoa
Inklusiboa
argia

Ezaugarri arkitektonikoak

Erantzun anitzak ahalbidetzen zituen galdeketa baten bidez bilatu zen talde bakoitzak gune garrantzitsuenek izan beharko dituzten ezaugarri arkitektoniko esanguratsuenak azpimarratzea. Aztertu ziren lau guneak hauek izan ziren: areto nagusia, Kafe Antzokia edo gune nagusia, tailerrak eta lan-espazioak.

KAFE ANTZOKIA

Altua
Aireztapen naturala
funtzionala
ERAKARGARRIA
IDENTITATEAREN ADIERAZLEA
Epela / goxoa
Irekia
AKUSTIKOKI ONGI ISOLATUA
Erabilera anitzekoa
Azalera murrizteko edo handitzeko aukera

BULEGOAK

Malgua
Azalera murrizteko edo handitzeko aukera
Inklusiboa
Epela / goxoa
ARGIA
Funtzionala
Erakargarria
Aireztapen naturala
Irekia
Akustikoki ongi isolatua
Erabilera anitzekoa
Moldagarria

KAFE ANTZOKIA

GUNE NAGUSIA

Eskenatokitik banatua? **Ez**

Bazkaltzeko/Afaltzeko lekua bertan? **Bai**

Areto gisa erabiltzeko aukera? **Bai**

Barrarekin erlazio zuzena? **Bai**

Kaletik ikusi behar da? **Ez**

ESZENATOKIA

Erdigunean, malgua eta erabilera anitzekoa?
Moldatu daitekeena? **Bai**

Finkoa? **Bai**

Neurriak: **7,5x5m**

Bilbao kafe antzokia:
ahoa 7,76m x sakonera 8m x sorbaldak 1,40 m

Berreoko Kafe Antzokia:
9,30 m zabal X 5,34 m sakon X 4,93 garai den foro

Durango ko kafe antzokia:
ahoa 9m x sakonera 7m x sorbaldak 2,10 m

Argiztapen naturala? **Ez**

Eszenatoki gaineko altuerak solairu bakarra? **Ez**

TABERNA

Gune nagusiarekiko bereizketarik gabe? **Ez**

Jatetxea, taberna eta barra leku ezberdinetan? **Ez**

Kafe Antzokiaren solairu bakoitzean barra bat? **Ez**

Ostalaritza espazioek lotura zuzena izan behar dute? **Bai**

EUSKARAREN ETXEA

TAILERRAK

Tailer motak
8-10 pertsonako taldekatzeak? **Bai**
Zenbat? **1**

10-20 pertsonako taldekatzeak? **Bai**
Zenbat? **1**

Talde handiagoak? **Ez**
Zenbat?

Baliabide espezifikoak behar dira? **Bai**
Ura **Bai** Zenbat? **1**
Sukaldea **Ez** Zenbat?
Labea **Ez** Zenbat?
Altzari espezifikoak **Bai** Zeintzuk?
Ura tailer batean

Erabilera anitzeko espazioak? Bai / Ez
Zenbat?

Lotu edo banatu daitezkeen espazioak? **Bai**

Tailer guztiak elkarren ondoan egon behar dute? **Ez**

LAN ESPAZIOA

Bulego motak:
Banaka/Binaka? **Ez**
Zenbat?

4-8 pertsonentzako bulegoak? **Ez**
Zenbat?

8-20 pertsonentzako bulego malguak? **Ez**
Zenbat?

Taldekatze handiagoak? Coworking modukoak? **Bai**
Zenbat? **20 pertsona**

Altzari bidez banatutako espazio ireki eta zabala,
bulego itxirik gabe? **Bai**

Bilera gelak:
3-6 pertsonentzako bilera gelak? **Bai**
Zenbat? **2**

6-12 pertsonentzako bulego malguak? **Bai**
Zenbat? **1**

Aisialdirako ingurune espezifikoa bulegoetan? **Ez**

Sukaldea/Kaferako gela bulegoetan? **Ez**

Harrera/Informazio puntua bulegoetan? **Ez**

ARETOA / ERAKUSKETA ESPAZIOA

Sarrera independentea? **Bai**

Informazio gunea edo beren beregizko harrera? **Bai**

Kalearekin lotura zuzena izan behar du? **Ez**

Kafe-antzokiarekin lotura bisuala? **Ez**

Tailerrekin lotura bisuala? **Ez**

Bulegoekin lotura bisuala? **Ez**

Aretoak ikus-entzunezkoetarako azpiegitura izan behar du? **Bai**

Espazio txikiagoetan banatu daitekeena? **Bai**

Aretoak erakusketak hartzeko aukera eman beharko du? **Bai**


Langile bat edo gehiago egon behar da fisikoki bertan? **Bai**


Kaletik ikusi behar da? **Bai**



Antolaketa - Harremanak

Programa arkitektonikoan txertatu beharreko espazio mota ezberdinak koloredun pieza ezberdinekin irudikatu ondoren, horien arteko harreman mota ezberdinak adierazi ziren harien bidez. Gune ezberdinen arteko loturen inguruan hausnartzeko abiapuntua izan zen, espazio bakoitzaren erabileraren eta beharren arabera.






Espazio ezberdinen arteko harremanen egituraketa (denon artean adostutakoa)

Espazio ezberdinen arteko harremanen egituraketa | Beste aukera batzuk

A aukera



B aukera




Behin parte-hartzaileen proposamenak jaso eta gero, bigarren saio batean espazio ezberdinen arteko harremanak lantzeko estrategia berriak aurkeztu ziren diagrama modura. Proposamen berri hauek abiatuta, aurretik adostutakoaren egokitasuna, eta aukera berriek eskaintzen zituzten abantailak eta zailtasunak ondorioztatu ziren.

A aukeran: gune nagusia, hipotetikoki jauregiaren erdiguneko patioa, elementu neurgarria izango litzateke, eta zirkulazio guztiak bertatik abiatuko ziren. Beraz, erdigunetik abiatuta, gainontzeko espazioekiko harremanak ikusten dira, eta sarrera nagusia ere bertan kokatu beharko litzateke. Hortaz, proposamen honen arabera, Kafe Antzokia edo gune nagusia eraikinaren ardatza izan beharko litzateke, eta Errementari kaletik zein Zapatari kaletik gune nagusirako sarrera zuzena ziurtatu beharko litzateke.

B aukeran: hiru gune nagusiak (lan-espazioak, kafe antzokia eta areto-erakusketa gunea) ezberdinduta daude eta bakoitzak bere sarrera independentea izan beharko luke. Hipotetikoki, barne zirkulazioaren bidez lotzeko aukera egongo litzateke.


Espazio ezberdinen antolaketa orokorra Ruiz de Bergara jauregian

1.




3. SOLAIRUA

BULEGOAK
BILERA GELAK
KOMUNAK
TERRAZA
BILTEGIA



2. SOLAIRUA

TAILERRAK
KAFE ANTZOKIA
ERAKUSKETA GELA
KOMUNAK



1. SOLAIRUA

SARRERA
INFORMAZIO PUNTUA
ARROPAZAINDEGIA
TABERNA
JATETXEA
SUKALDEA

ESKENATOKIA
GUNE NAGUSIA
DJ KABINA


KOMUNAK
BILTEGIA



-1. SOLAIRUA

INFORMAZIO PUNTUA
ERAKUSKETA GELA
ARETOA


BILTEGIA
KOMUNAK



0. SOLAIRUA

Asmatu!

Programa arkitektonikoa Ruiz de Bergara jauregiak dituen muga eta aukeretara egokitze aldera, talde bakoitzak bere ekarpenak egin zituen egungo ezaugarri morfologikoetara egokituta. Lazarraga Kultur Elkartek proposamenak landuta zituenez, adostasun handia agertu zen parte-hartzaile guztien artean.



Ametsen eskultura

Dinamika labur honen bidez, parte-hartzaileek Gasteizko Kafe Antzokiaren eta Euskararen Etxearen identitatea hitz gutxitan definitu zuten. Hitz ezberdinekin eskultura txiki bat sortu ondoren, jasotako ideiak modu grafikoan bildu ziren eta collage bat egin zen.



ERABILTZAILEA: HIRITARRA

A EGUNA			B EGUNA			C EGUNA		
ORDUA	EKINTZA	ESPAZIOA	ORDUA	EKINTZA	ESPAZIOA	ORDUA	EKINTZA	ESPAZIOA
8:00 11:00	Mintzalagunen bilera	Bilera gela Taberna	8:00 11:00			8:00 11:00		
11:00 14:00			11:00 14:00			11:00 14:00	Kafea hartu	Taberna
14:00 17:00	Bazkaria	Jatetxea	14:00 17:00			14:00 17:00		
17:00 20:00	Euskararen aldeko bilera	Bilera gela Tailerra Taberna	17:00 20:00	Antzezlanak kontzertua	Gune nagusia Taberna Aretoa	17:00 20:00	Erakusketa	Erakusketa gela Taberna
21:00 00:00	Afaria	Jatetxea	21:00 00:00	Kontzertua	Gune Nagusia Taberna	21:00 00:00	Tailerra	Tailerra Aretoa Taberna

Ordutegiak

Hiru talde desberdinetan garatu zen dinamika honen bidez, erabiltzaile mota ezberdinek egingo luketen eraikinaren erabilera espezifikoak aurreikusitako modu hipotetikoan: ordutegiak, ekintzak eta espazioak erlazionatu ziren.

ERABILTZAILEA: EKITALDI BATEN LOGISTIKA ARDURADUNA

A EGUNA		
ORDUA	EKINTZA	ESPAZIOA
8:00 11:00	Garbiketa	Biltegia Bulegoa
11:00 14:00		
14:00 17:00	Otordua Montaketa	Jatetxea Aretoa Aldagelak
17:00 20:00	Soinu probak Kontzertua	Antzokia Jatetxea Aldagelak
21:00 00:00	Kontzertua	Antzokia Aldagelak

B EGUNA		
ORDUA	EKINTZA	ESPAZIOA
8:00 11:00	Garbiketa Produkzioa	Biltegia Aretoa
11:00 14:00	Jende aurreko ordutegia	Bilera gela
14:00 17:00		
17:00 20:00	Jende aurreko ordutegia	Bilera gela
21:00 00:00		

C EGUNA		
ORDUA	EKINTZA	ESPAZIOA
8:00 11:00	Garbiketa Prestaketa	Biltegia Bulegoa
11:00 14:00	Tailerra eman Aldagelak	Tailerra
14:00 17:00	Garbiketa Prestaketa	Biltegia
17:00 20:00	Tailerra eman Aldagelak	Tailerra
21:00 00:00		

ERABILTZAILEA: EUSKARAREN ETXEKO LANGILEA

A EGUNA		
ORDUA	EKINTZA	ESPAZIOA
8:00 11:00	Lantalde bilera	Sarrera
		Bilera gela
11:00 14:00	Beste eragile batekin bilera Kudeaketa lanak	Bilera gela
		Tailerra
		bulegoa
14:00 17:00	Bazkaldu	Jatetxea
17:00 20:00	Tailer bat ikusten jarri Elkartearen bilera	Tailerra
		Bilera gela
21:00 00:00		

B EGUNA		
ORDUA	EKINTZA	ESPAZIOA
8:00 11:00	Lanera sartu Lantalde bilera	Sarrera
		Bilera gela
11:00 14:00	Kafea hartu Jardunaldia	Kafetegia
		Areto Nagusia
14:00 17:00	Tailerra	Tailerrak
17:00 20:00	Ekitaldiaren prestaketa Ekitaldia kudeatu	Areto Nagusia
21:00 00:00	Materiala jaso	Biltegia


C EGUNA		
ORDUA	EKINTZA	ESPAZIOA
8:00 11:00		
11:00 14:00	Umeeekin jarduera	Tailerrak
14:00 17:00	Bazkari Herrikoia	Jatetxea
17:00 20:00	Ekitaldi prestaketak Kontzertua	Kafe Antzokia
		Kamerinoak
		Biltegia
21:00 00:00	Inauteri jaia	Kafe Antzokia




ograma programa programa
na programa programa
ograma programa programa
na programa programa
ograma programa programa
na programa programa
ograma programa programa
na programa programa

PROGRAMA
GASTEIZKO KAFE ANTZOKIA + EUSKARAREN ETXEA

Programak bere baitan hartzen dituen espazio ezberdinen arteko harremanak




Kolore horiz adierazten dira eremu garrantzitsuenak.
Kolore magentaz adierazten dira kaletik proposatzen diren sarrerek.




Intsonorizazioa

Kafe Antzokiko gune nagusia gainontzeko programarekiko akustikoki oso ondo isolatuta egon beharko da. Horretaz gain, etxebizitzaren gertutasunak ere eragin zuzena izango du jauregiaren bi alboetan zein gune nagusiaren gainean, Zapatari kaletik sarrera duten etxebizitzaren kasuan (kolore grisez adierazi da irudian). Horretaz gain, taberna-kafetegiaren eremuak ere intsonorizazioari dagokion araudia bete beharko du.



Zirkulazioa


Eraikinak dituen ezaugarri morfologikoak eta gune ezberdinek izan beharko duten izaera independenteak abiapuntua konplikatu dezakeen arren, barne zirkulazioa intuitiboa izan beharko da erabiltzaileari dagokionean, eta bertara iritsiko den publikoaren aniztasuna errespetatu beharko du.



Sarrerak


Eraikinerira iristeko sarrera zuzena dago dagoeneko Errementari kalean. Fatxadak dituen zuloen arabera, beste sarrera bat ere ahalbidetu daiteke.

Zapatari kaletik ere beste sarrera zuzen bat dago. Euskararen Etxeko langileentzako sarrera independente bat berma daiteke Zapatari kaleko etxebizitzaren ataritik, horrela lehenengo eta bigarren solairuekin konektatuko litzateke.



Solairu berria


Erdiguneko patioa mantendu egin beharko da. Zapatari kalearen altuera berdintsuan solairu berri bat eraikitzea proposatzen da lehen aukera bezala, eta patioa altuera honetan ixtea. Beste edozein kotatan solairu berria eraikitzea ez du gomendatzen Eusko Jaurlaritzako Kultura ondare zuzendaritzak, nahiz eta Arabako Foru Aldundiak duen azken hitza kontu honetan.




Sektorizazioa

Jauregiaren eta alboko espazioek eratzen duten eraikinaren egungo konfigurazioa bi sektore ezberdinetan banatzen da. Ondorioz, erabilerak ezberdindu beharko diren edo ez aztertu beharko da: (Kafe Antzokia) + (Euskararen Etxea eta taberna).

Espazio ezberdinen antolaketa orokorra Ruiz de Bergara jauregian






Programaren antolaketa proposamena


Prozesu parte-hartzailean zehar jasotako ekarpen guztien arabera adostutako proposamena, eta printzipioz, Gasteizko Udalaren oniritzia jaso duena. Zapatarri kalearen kota berdintsuan solairu berri bat eginez gero, Errementari kalearen

kota berdintsuan geldituko dira aretoa eta erakusketetarako espazioa. Lehenengo solairuan, edota Zapatarri kalearen kotan, berriz, taberna-kafetegiaren bidez eraikineria sartuta, Kafe Antzokiaren gune nagusia proposatzen da erdiguneko patioan. Bigarren

solairuan tailerrak kokatuko lirateke, eta patioaren inguruan sortzen den galerian ere erakusketak egin daitezkeela aurreikusten da. Azken solairuan, Euskararen Etxeko lan-espazioak eta bilera gelak egongo lirateke.



Programaren antolaketa proposamena | Bestelako aukerak (A)



Programaren antolaketa proposamena | Bestelako aukerak (B)

Arazoak planteatzen dituzten aukerak

A aukera

Hasiera batean, Lazarraga Kultur Elkartek aukera honetan zehazten den antolaketa proposatu zuen; horrela, Kafe Antzokiaren gune nagusira Errementari kaletik sartu ahal izateko. Eskema horri jarraiki, Kafe Antzokia beheko solairuan kokatuko litzateke, eta Euskararen Etxea gaineko solairuetan. Patioaren konfigurazio arkitektonikoa apurtzen duen aukera izanik, zailtasun handiak ikusten zaizkio.








B aukera


Antzeko antolaketa da funtsean, baina, areto espezifiko eta itxi bat planteatu gabe. Erdiguneko patioak, gune nagusi bilakatuta, indar handiagoa izango luke espazioen ezaugarri arkitektonikoei dagokienean, baina eragin handia izango luke garatu nahi den programan: hitzaldiak eta ikus-entzunezkoak hartuko litzuzkeen areto espezifiko bat galduko litzateke, eta hori ezinbesteko ikusten da.

Espazio eta denboren arabera ordutegi hipotetikoa.

Kafe Antzokiko gune nagusiak etengabeko erabilera izango du, kontzertu edo ekitaldirik ez dagoenean, ostalaritzarekin lotutako elkargune funtzioa izango baitu.







Euskararen Etxearekin erlazionatutako espazioek ere etengabeko erabilera izango dute, batez ere, astegunetan.










	A s t e g u n e t a n				A s t e b u r u e t a n		
							
Lan espazioa	Lan orduak	Atsedena	Lana				
Bilera 1	Jende aurreko ordutegia	Bilera	Kudeaketa lana				
Bilera 2	Komertzialarekin bilera		Jende aurreko ordutegia				
Bilera 3	Artistekin bilera	Barne bilera	Programazio lana				
Tailerra 1	Mintzalagun bilera	Prestaketa	Tailerra				
Tailerra 2	Euskararen aldeko bilera	Prestaketa	Tailerra				
Aretoa	Garbiketa	Prestaketa	Ekitaldia		Prestaketa	Batzordea	Jasotzea
Gune nagusia	Mintzalagun bilera	Bazkaria	Antzezlanak	Afaria	Herri bazkaria	Soinu probak	Kontzertua
Erakusketa	Prestaketa	Aurkezpena	Bisita gidatua	Bisita librea	Bisita gidatua	Bisita librea	



AZALERAK		GKA+EE	
1_KA	KAFE ANTZOKIA	442 m2	35,4%
1.01	harrera nagusia	8 m2	
1.02	ateondoa	6 m2	
1.03	arropazaindegia	6 m2	
1.04	txarteldegia	3 m2	
1.05	kafe antzokia (1.solairua)	174 m2	
	gune nagusiko barra	6 m2	
	kafe antzokia (2.solairua)	100 m2	
1.06	kontrol teknikorako kabina	8 m2	
1.07	kamerinoak	14 m2	
1.08	taberna-kafetegia	65 m2	
1.09	tabernako barra	8 m2	
1.10	sukaldea	24 m2	
1.11	sukaldeko biltegia	6 m2	
1.12	aldagela	14 m2	
2_AR	ARETOA	168 m2	13,4%
2.01	informazio puntua	6 m2	
2.02	aretoa	100 m2	
2.03	erakusketa espazioa	50 m2	
2,04	kontrol eta interpretazio kabina	12 m2	
3_TA	TAILERRAK	80 m2	6,4%
3.01	tailerra 1	30 m2	
3.02	tailerra 2	50 m2	
4_LE	LAN ESPAZIOAK	192 m2	15,4%
4.01	lan espazioak	140 m2	
4.02	bilera gela 1	28 m2	
4.03	bilera gela 2	24 m2	
5_BE	BESTELAKOAK	108 m2	8,6%
5.01	komunak	50 m2	
5.02	biltegiak	55 m2	
5.03	garbiketa gela	3 m2	
6_ZI	ZIRKULAZIOA	-	20,8%
	INSTALAZIOA	-	

Gutxi gorabeherako azalaren aurreikuspena (espazioen arteko proportzionaltasuna landuta). Espazio ezberdinek aldaketak jasan ditzakete azalari zein kopuruari dagokionean: betiere, dokumentu honetan jasotzen den proposamena errespetatzen bada eta aldaketa muga teknikoak direla eta justifikatuta badago.

KAFE ANTZOKIA	harremanak		deskribapena
harrera nagusia	txarteldegia arropazaindegia taberna-kafetegia		Sarrera nagusia Zapatari kalean kokatu behar da. Harrera guneak arropazaindegiarekin eta txarteldegiekin edo sarrerak jasotzeko puntuarekin bat egin behar du, baina eraikin osoko informazio gune bat bertan egon behar da. Aldi berean, toki honetatik Gasteizko Kafe Antzokiaren gune nagusia nabarmentzea interesgarria izango litzateke.
ateondoa	kalea harrera nagusia txarteldegia		
arropazaindegia	harrera nagusia txarteldegia		
txarteldegia	kalea harrera nagusia ateondoa		
kafe antzokia	eszenatokia kontrol teknikorako kabina taberna-kafetegia garbiketa gela biltegia kamerinoak komunak sukaldea	  	Kafe Antzokiaren gune nagusia Ruiz de Bergara jauregiaren Erdiko patioan kokatu beharko litzateke. Espazialki lotuta egongo diren bi gune nagusitan banatzea proposatzen da: Zapatari kaleko sarrerako solairuan kokatutako eremua eta goiko gunea, patioa ingurutzen duen balkoia hartuta Eszenatokia, betiere muga teknikoek ahalbidetzen badute, egoera ezberdinetara egokituko den plataforma bezala ulertu behar da. Kafe Antzokiak izango duen programaren arabera, espazio berdintsuak jangela eta kafetegi funtzioa ere izango ditu. Erdiko patioaren zehaztasunak eta proportzioak kontuan izanda, argitasun egokia ziurtatu beharko litzateke, eta iluntasun osoa lortzeko aukera bermatzea ere ezinbestekoa izango da. Horretaz gain, gune nagusiko edozein puntutan, konfort akustikoa eta bisuala bermatu beharko dira. Bestalde, espazio honetako elementu finko bakarra, erdiguneko eszenatokia izango da. Aldi berean, etxebizitzaren gertutasuna aintzat harturik, ezinbestekoa izango da gune honen intsonorizazio egokia kontuan izatea. Biltegi orokorarekin ere konektatuta egon beharko da. Aforoari dagokionean, sarrera eta ebakuazio korridoreen kokapena aztertu beharko da, eskatutako minimoak errespetatzeko.
kontrol teknikorako kabina	gune nagusia aretoa		Argia eta soinua kontrolatzeko kabinak gune nagusiarekin kontaktuan egon beharko du.

KAFE ANTZOKIA		harremanak	deskribapena
kamerinoak	gune nagusia		Aldagela eta dutxa duten bi kamerino gutxienez. Komenigarria da, eraikinaren konfigurazioak ahalbidetzen badu, eszenatoki nagusitik gertu kokatzea.
taberna-kafetegia	sukaldea sukaldeko biltegia harrera arropazaindegia gune nagusia komunak		Kalearekin eta Kafe Antzokiko gune nagusiarekin erlazionatuta egon beharko du. Espazio honek gainontzeko eremuekiko ezberdinak izango diren erabilera eta ordutegiak izan ditzake, eta, ondorioz, proiektuak gune honen sarrera-irteera espezifikoari, logistika eta instalazio propioei etab. soluzio teknikoa bilatu beharko die. Etxebizitzan gertutasuna medio, gainera, gunearen intsonorizazioa bermatu beharko da.
barra	gune nagusia		Gune nagusiarekin erlazio zuzena izan beharko du.
sukaldea	sukaldeko biltegia taberna-kafetegia		
sukaldeko biltegia	sukaldea		
aldagela			
ARETOA		harremanak	deskribapena
informazio puntua	aretoa erakusketa espazioa		Eraikin osoko informazio orokorraren gunea. Sarrera Errementari kaletik.
aretoa	informazio puntua komunak		Leku irekia eta erabilera anitzekoa izan behar da. Nahiz eta altuera handia behar ez duen, hau lantzea interesgarri ikusi zen.
erakusketa espazioa	aretoa informazio puntua		Erakusketa guneak toki ezberdinetan bana daitezke. Publiko orokorrarentzat gertu egon beharko dute; eta hortaz, gune nagusitik eta aretotik gertu egon beharko dute. Erakusketa gune batzuk zirkulazio espazioetan ere egon daitezke, betiere erakusketa gela bereiz eta espezifiko bat egongo dela bermatzen bada.
TAILERRAK		harremanak	deskribapena
tailerra 1	lan espazioa langileen aldagelak komunak		Erabilera anitzeko gela hau Euskararen Etxearekin erlazionatuta egongo da. Bi tailerretako batek behintzat ur-hargunea eduki beharko luke. Horretaz gain, tailerrak beraien artean konbinatzeko aukera eskaintzea garrantzitsua da, eta horrela espazio bakar bat edo bi sortu. Bestalde, posible izanez gero, hirugarren tailer bat kokatzea ere kontsideratu da.
tailerra 2	biltegia		

LAN ESPAZIOAK		harremanak	deskribapena
lan espazioak	langileen aldagelak bilera gelak biltegia komunak		Lan espazio irekia. Altzari edo elementu mugikorren bidez banatuko dira lan-gune ezberdinak. Ingurunearen konfort akustikoa ere kontuan hartu beharko da, bertan bildu daitezkeen talde eta norbanako ezberdinen lanek elkarri trabarik egin ez diezaioten.
bilera gela 1	lan espazioak		Lan espaziotik hurbil dagoen bilera gela nagusia.
bilera gela 2			Lan espazioarekin harremana duten bi bilera gela, bananduak. Posible izanez gero, hirugarren bat ere ondo etorriko litzateke.
BESTELAKOAK		harremanak	deskribapena
komunak			Araudiak eskatzen duen gutxienekoa bete egin beharko da.
biltegiak			Biltegien tamaina eta kokapena alboko gune garrantzitsuen arabera izango da. Biltegi orokor batek gune nagusiaren alboan egon beharko du, baina erakusketa gune, areto, tailer eta bulegoek ere biltegi propioak beharko dituzte.
garbiketa gela			
ZIRKULAZIOA			Espazio ezberdinen arteko zirkulazioa proiektuaren estrategien arabera garatuko da. Zapatari kaleko sarrera ate nagusia izango da publikoarentzat, eta Euskararen Etxeko langileak, berriz, etxebizitzaren atalondotik sartuko dira. Eskailera hauetatik lehenengo eta bigarren solairuetara sar daiteke, eta horrela Euskararen Etxeko bulego berrietara iritsi. Erremontari kaleko hormako bi hutsuneetatik sartzeko aukera egongo dela aurreikusten da. Jauregiaren barnealdean, erdiko patioetik hurbil, igogailurentzat egitura egina dago jada.
INSTALAZIOA			Instalazioen diseinuak aintzat hartu beharko du gune ezberdinen independentzia erabilerari dagokionean, aire-egokitzapenak zein argitasunak espazio ezberdinen izatearen arabera erregulatzeko aukera emango dute.

Oharrak

Kafe Antzokiaren eta Euskararen Etxearen espazioek ordutegi eta erabilera ezberdinak izango dituztela azpimarratzea garrantzitsua da. Bertako erabiltzaileen aniztasuna kontuan izanda, sartu-irtenen eta instalazioen kudeaketa modu eraginkorren gauzatzeko estrategia diseinatu beharko da, eta gunen ezberdinen funtzionamendu independentea errespetatu.

Hemen adierazitako azalaren zehaztasuna gutxi gorabeherakoa da, neurketa espezifikoaren arabera moldatuko dira.

Ezinbestekoa da erantzun egokia ematea isolamendu akustikoari, gunen nagusian kalitatezko soinua egon dadin, eta modu berean, alboko etxebizitzetan ezer entzun ez dadin.

Eszenatokia nolakoa izango den eta gunen nagusian nola egokituko den proposatzeko lanketa berezia egin beharko da. Izan ere, espazio handia beteko duenez bai proposamen teknikoari dagokionez bai erabilera proposamenen aldetik ikerketa landuak baloratuko dira.

Hemen azaltzen diren diagramak, Lazarraga elkartearekin egin den prozesu parte-hartzailearen emaitza eta ondorio dira. Informazio guztia osagarria da, dituzten beharrak ulertarazteko ematen da.

GKA+EE

egilea:

nondik

Arkitektura eta Hezkuntza Ikerkuntza estudioa

bultzatzailea:



LAZARRAGA
KULTUR ELKARTEA

Gasteizko Kafe Antzokiaren eta Euskararen Etxearen Programa | 2018 ko Urria | www.nondik-lab.com